

Bioef Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioaren zahartze osasungarriari buruzko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia.

BIOEF

Xedea

Deialdia zahartze osasungarriari buruzko ikerketara bideratuta dago, honako arlo eta ildo hauetan:

- Narriadura fisiko, psikiko eta sozialaren sustapena, prebentzioa eta detekzio goiztiarra.
- Osasunari aplikatutako teknologiaren erabilera, telemonitorizazioa barne (app-ak, wearable-ak...), eta osasuna mantentzearekin eta hobetzearekin duen lotura.
- Osasun publikoko eta epidemiologiako azterlanak.
- Pertsonen ematen zaien laguntza psikosoziala hobetzea.
- Pertsonen bizi-kalitatean eragina duten alderdietan (bizi-ohiturak, esposizioak, genetika...) oinarritutako ikerketa.
- Ikerketa soziosanitarioa eta antolamenduzkoa, pertsonen, senideen eta zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzera bideratua.

Erakunde onuradunak

ZTBESn egiaztatutako eragileek lankidetza-proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte. Proiektu horiek proiektua garatzeko beharrezkoak diren eta gaitasuna duten erakundeek egingo dituzte, erakunde horiek onuradunak (2. artikulua honetan jasotakoaren arabera) izan zein ez, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 11.3 artikuluan ezarritakoarekin bat. Lankidetza-proiektuen kasuan, parte hartzen duten erakunde guztien arteko lankidetza-akordio bat formalizatu beharko da. Akordioa erakunde horien legezko ordezkari guztiek sinatu beharko dute, proiektua gauzatuko dela bermatu beharko du eta emaitzak ustiatzeko adostutako baldintzak deskribatu beharko ditu. Akordioa laguntza emanez gero baino ez da aurkeztuko.

Proiektuen ezaugarriak

Talde eskatzailearen buru ikertzaile nagusi arduradun bat edo bi izango dira. Bi ikertzaile nagusirekin (IP eta co-IP) aurkeztu direnean, biek laguntza eskatzen duen erakundearen plantillakoak izan beharko dute, eta horietako batek solaskide gisa jardungo du ondorio guztietarako (lehenetsita, IP gisa identifikatzen den ikertzailea izango da).

Ezinbesteko baldintza da, gutxienez, ikerketa sanitarioko zentroen kategorian egiaztatutako ZTBESko eragile batek parte hartzea.

Ikerketa-proiektuek 2 edo 3 urteko iraupena izan dezakete. Proiektu bakoitzeko gehienez 200.000 euro finantzatu ahal izango dira.

Taldearen betekizunak:

Ikertzaile nagusiek (baita co-IPEk ere) eginkizun horrekin **eskabide bakar batean** parte hartu ahal izango dute. Ikerketa-taldeko gainerako kideek ez dute mugatuta izango proiektu desberdinetan parte hartzeko aukera.

Kontuan hartuko dira bereziki ikertzaile emergenteek zuzendutako proiektuak. Ikertzaile emergentetzat hartuko da norgehiagoka-araubidean finantzatutako proiektuetan aldez aurretik IP koordinatzaile gisa parte hartu ez duena eta ikerketa-zentro batekin duen lehen lotura egonkorra deialdia argitaratu aurreko hamar urteen barruan sortu duena. Epea zenbatzeko, deialdian aurreikusitako egoerak hartuko dira kontuan.

Talde eskatzaileetako kideek formalizatuta izan beharko dute funtzionario- edo kontratu-lotura ZTBESko eragile onuradunarekin.

Aurrekontuaren betekizunak

UPV/EHUK aurkeztutako eskabideek **zeharkako kostuen % 10** jaso beharko dute (zuzeneko kostuen gainean kalkulatuta).

Berariaz baztertzen dira altzariak eta instalazioak erosteko gastuak, informatika-ekipo pertsonalak edo kudeaketakoak erostea eta bulegoko material orokorra finantzatzea —hala nola fotokopiak, tonerra edo telefono-gastuak—, bai eta prestakuntza-jarduerak, sozietate zientifikoetako kuotak eta argitalpenetarako harpidetzak ere.

Onuradun bakoitzak azpikontrataturako jardueraren kostu globala ezin izango da izan onuradun horren aurrekontu finantzarriaren **% 50** baino handiagoa.

Eskabideak aurkezteko modua

UPV/EHUK koordinatutako proiektuak

- **2026/08/30era arte:** UPV/EHUko ikerketa-taldearen I-A eranskina bidali convocatoriasautonomicas.dgi@ehu.eus helbidera, «BIOEF 2026 deialdia» gaiarekin, berrikus dezaten.
- **2026/09/06ra arte:** dokumentazio osoa bidali:
 - **I. eranskina:** proiektuaren memoria.
 - **I-A eranskina:** erakunde eskatzaile bakoitzaren ikerketa-taldea, dagokion IPak sinatua.
 - **I-B eranskina:** erakunde eskatzaile bakoitzaren memoria ekonomikoa, haren legezko ordezkariak sinatua.
 - **CVak** IPen eta ikerketa-taldeetako kide guztienak.
 - **II. eranskina:** erakunde eskatzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena, haren legezko ordezkariak sinatua.
 - **V. eranskina** edo baimen etikoak.
- Errektoreordetzak dokumentazioa berrikusiko du, UPV/EHUren I-B eta II. eranskinak sinatzeko izapideak egingo ditu eta eskabide elektroniko bakarra aurkeztuko du erakunde koordinatzaile gisa.
- Erregistroa egin ondoren, aurkezpenaren egiaztagiria bidaliko zaio IP koordinatzaileari.

Kanpoko eragile batek koordinatutako proiektuak

Eskabidea aurkeztea erakunde koordinatzaileari dagokio.

UPV/EHUren parte-hartzearen arduradunak **2026/09/03** baino lehen bidali beharko ditu:

- **I-A eranskina**, UPV/EHUko ikerketa-taldearena, UPV/EHUko IPak sinatua.
- **I-B eranskina**, UPV/EHUren aurrekontuarekin eta eskatutako laguntzarekin.
- **CVak**, UPV/EHUko ikerketa-taldeko kide guztienak.
- **II. eranskina**, UPV/EHUri dagokiona.
- **V. eranskina** edo baimen etikoak.

Errektoreordetzak dokumentazioa berrikusiko du, UPV/EHUren I-B eta II. eranskinak sinatzeko izapideak egingo ditu, eta erakunde koordinatzaileari itzuliko dio, eskabidean sar dezan.

Eranskinen txantiloia esteka honetan deskargatu ahal izango dira:
https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2026/ayuda_investigacion_envejecimiento_bioef/web01-tramite/eu/

Curriculumak: FECYT-en CVN ereduak onartzen da, eta, berritasun gisa, Osasun Sailaren osasun-arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdiko eta Carlos III.a Osasun Institutuko CV ereduak ere bai.

Baimen etikoak: Ikerketaren Etika Batzordearen aldeko txostena edo irizpena aurkeztu ahal izango da, edo, oraindik halakorik ez badago, IParen erantzukizunpeko adierazpen bat (V. eranskina), proiektua finantzatzeko bada garaiz eta behar bezala eskatuko dela adierazteko.

Eskabideak aurkezteko epea

13/08/2026tik 15/09/2026ra, 14:00ak arte.

Informazio gehiago: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1048912>

Kontaktua BIOEF:

Olatz Sabas García-Borreguero (I+G+b Kudeaketa / Gestión de I+D+i)
T +34 94 453 61 43 olatz@bioef.eus www.bioef.eus